

## MUSIKA ASTEA URRIAREN 7TIK 13RA

# Hiru rock kontzertu, poesia, bideoak eta azoka gaurtik igandera

■ Denera 11 rock eta punk talde arituko dira, horietatik bi Germen eta Black Jiko, hernaniarrak ■ Kontzertuak Tilosetan dira ■ Musika Astea 'Astintzen' taldeak antolatzen du eta Udalaren laguntza du.

'ASTINTZEN' taldeak bigarren Musika Astea antolatu du Hernanin, baina, musikaz gain gauza gehiago ere izango dira. Gaur eta bihar Hernanin izandako kontzertuetako bideoak botako dituzte Tilosetan eta asteazkenean punk kontzertuetako bideoak. Ostegunean Rock Astea egiten zeneko eta iazko Musika Asteko diapositibak botako dituzte Garin tabernan, eta iluntzean poesia eta musika uztartzen dituen emanaldia emango du Kirmen Uribe poeta ondarrutarrak taldearekin, Milagrosan.

### Kontzertuak ostiral, larubat eta igandean

Aurtengo hiru musika kontzertuak ostiral, larubat eta igandean izango dira eta guztira 11 taldek joko dute. Antolatzaileen helburua herriko taldeak bultzatzea ere bada eta saiatu dira ostiralean Hernaniko taldeekin kontzertua osatzen, baina, azkenean Germen eta Black Jikok ostiral eta igandean joko dute. Tilosetan txozna jarria egongo da kontzertu egunetarako.


Kontzertu eta bideo emanaldiez gain, estilo desberdinetako musika jartzaileak, bertso bazkaria, diskoak eta musikarekin zerikusia duten gauzen merkadiloa eta kalejira ere antolatu dituzte.

### Rock Astearen segida

Musika Astea iaz egin zen lehenengoz, baina, 1987tik 1996-ra Rock Astea egiten zen Hernanin, eta arrakasta haundiarekin gainera. Bost urtean isilik egon bada ere, ordukoaren segida da Musika Astea.



Iazko Musika Astearen joko zuten Hernaniko hiru musikari.



**NAGORE RODRIGUEZ**  
(Antolatzailea)

"Gure filosofia musika talde hasi berri eta ezezagunei aukerak eman eta laguntzea da".

## MUSIKA ASTEA - EGITARAUA

### Astelehena 7:

**22:00etan**, Bideo emanaldia: Desorden taldearen kontzertua. Tilosetan.

### Asteartea 8:

**20:00etan**, Bideo emanaldia: Tijuana in Blue, Baldin Bada, La Polla... taldeek kirolegian emandako kontzertua. Tilosetan.

### Asteazkena 9:

**20:00etan**, Bideo emanaldia: punk taldeei buruzko kontzertua. Bodega tabernan.

### Osteguna 10:

**20:00etan**, beste urteetako diapositibak. Garin tabernan. **22:00etan**, Poesia emanaldia Kirmen Uriberen eskutik. Milagrosan.

### Ostirala 11:

**19:30etatik 22:00etara**, musika jartzaileak Leoka tabernan. Afofia. **22:00etan**, kontzertua Tilosetan: Germen, Biok, Izaera eta Hartu arte.

### Larunbata 12:

**18:00etan**, merienda eta poteoa trikitixa eta tinbalekin. **19:30etatik 22:00etara**, musika jartzaileak Apeadero tabernan. Rasskat. **22:00etan**, kontzertua tilosetan: Borrokan, Obligaciones, Leher eta Bosko el Tosko y su puta Banda.

### Igandea 13:

**14:00etan**, Bertso bazkaria Arizmendin. **18:00etan**, kontzertua Tilosetan The Basque Country Pharaos, Bulma eta Balk Jiko.

## MENDIRIZ MENDI

### Aralarren barrena ibilia urriaren 20an

MENDIRIZ Mendik mendia ibilaldia antolatu du urriaren 20rako. Errazkindik Beloki igo (1271 m) eta Lakuntzara jeistea da plana. Izen ematea zabalik dago urriaren 17 arte: astelehen, ostegun eta ostiralean Mendiriz Mendiko lokalean, 20:00etatik 21:00etara. Bazkideek 8 euro ordaindu behar dute eta bazkide ez direnek 11 euro. □

## BOLEIBOLA

### 3-2 galdu du Hernanik Kantabrian, nahiko ondo jokatu arren

HERNANIKO boleibol taldeak irabaziz hasi nahi zuen Lehen mailako ibilia, baina, kontrarioa estu hartu izanaren pozarekin konformatu beharko dute. Hernaniarrek nahiko hotz hasi zuten partidua eta Mazcuerras taldeak aurrea hartu zien 25-9. Bigarren jokua Hernaniarrentzat izan zen 20-25. Hurrengo 25-17 kantabriarrek bereganatu zuen, baina, 2-2 berdintzeko gauza izan ziren Hernaniko jokalariek gazteak (22-25). Azken jokuan nahiko erraz nagusitu ziren etxekoak, 15-7. Hernaniko jokalariek tristura pittin bat bazuten, ustez talde hobeari irabazteko aukera oso ona galdu baitute, baina, Lehen mailan ondo ibili litezkeela ere bada-kite orain. □

### Pailazo eta magia ikuskizunerako sarrerak salgai

PIRRITX Porrotx pailazoek eta Txan magoak bi emanaldi eman-goz dituzte bihar Biteri kultur etxean, 17:30etan eta 18:30etan. Sarrerak 4 eurotan daude Lete liburu dendan. □

**Hernaniko Kronika**  
Interneten  
[www.hkronika.com](http://www.hkronika.com)

**ZINGI-ZANGA**  
Jatetxea  
Ostiral eta larunbatean afariak ematen ditugu.  
Florida 54  
Tel: 943 33 03 97

**PROCOLOR ZENTRUA**  
**PL**  
Landaribar, s.l.  
Pintatzeko kipoak  
Industri eta dekonazionarioko pinturak  
Pintatutako paperak  
Kardaberaz 45 -Tel 943 552131-HERNANI

**HATOR**  
Asesoria  
AHOLKULARITZA  
Fiskala  
Laborala  
Kontablea  
Administratiboa  
Kardaberaz 60  
Tel. 943. 55 43 12  
20120 HERNANI

**ETXE ONENAK, S.A.**  
**GARAJE ITXIAK**  
**'OBLATOS'ETAN**  
**SALGAI**  
Informatu eta saldu:  
943 33.22.37

**HERNANI BIDAIK**  
Urbieta etorb. 6 - HERNANI  
☎: 943 33 00 49 - 33 01 74  
e-mail: hernanib@teletel.es  
Hernanitik munduko leku guztietara iristen lagunduko dizugu.

## CHILLIDA-LEKU MUSEOAK BI URTE BETE DITU

# Chillida-Lekuk 87.000 bisitari izan ditu aurtengo denboraldian, lehenengo urtean baino 10 % gutxiago

■ Euskal Herritik joan da museora jenderik gehien ■ Orain, Chillida beraren 'Bizitza eta filosofia' obra jarri berri dute museoan.

IRAILAREN 27an bete ditu Chillida-Leku museoak 2 urte eta arduradunek balorazioa egin dute. Lehenengo urtean 95.500 bisitari hartu zituen museoak. Bigarren urtean, berriz, 87.000 bisitari pasa dira, % 10 gutxiago. Arduradunek esan dutenez Euskal Herrikoa da museora joan den jenderik gehiena, baina, aurtengo denboraldian Frantziatik ere jende asko etorri da.

'Bizitza eta filosofia' obra Museoak hirugarren urtea hasi duen honetan, Chillida beraren obra bat jarri dute: *Bizitza eta filosofia*. Filosofia eta bizitzarekiko Chillidaren pentsakera eta jarrera azaltzen ditu obra honek hainbat liburu, marrazki, grabatu eta eskultu-



Musikariak eta entzuleak Chillidaren eskultura baten buetan.

ratan. Artistaren obra 2003 da museoan. □ urteko urtarrilera arte egongo

## JASOTA BEZALA

### SOLAIRU BAT GEHIAGO

#### ERAIKITZEA

Eskertzekoa da Hernaniko Udalak etxebizitza hutsen inguruan argitaratu berri duen estudioa. Bertan, jabeen jarrerak aldatu behar duela jartzen du, organismo bat sortzeko beharra... Nire iritzira oferta-demanda arazo bat da. Lortu behar duguna da alokairua jabearentzat errentagarria izatea, maizterrenzako prezio interesgarrian. Horrela beteko dira etxe hutsak, eta hemen azalduko ez ditudan beste zenbait onura ere lortuko dira.

Balizko maizterrek kondizio onean dauden etxebizitzak nahi dituzte, eta horretarako hutsik dauden etxe gehienek konpontzea be-

har dute: igogailuak jartzea, portero automatikoa... Berrikuntza hauek miloi askoko inbertsioa eskatzen diote jabeen eta obrei eta etxebizitzari rentabilitatea atera nahi diote. Etxe jabea bildur da maizterrek etxea nola utziko dioten; askotan utzitako fidantza txikiegia da egindako txikizioak konpontzeko; ordaintzen ez duen maizterrak ordainduko duen ziurtasunik ez du jabeak, eta ez du nahi duenean etxea erabiltzeko aukerarik ere.

Udal ordenantzei dagokien, leku batzuetan, etxe berria egitean solairu bat galdu lezake etxeak; alegia, lau pisuko etxea hiru izatera pasa litekeela. Honek lurrari dago-

kion prezioa asko igotzen du, eta etxebizitzak asko garestitzen ditu.

Horrela beharrean, beste hainbat lekutan solairu bat gehiago egiteko aukera ematen da etxea berritzean. Lau solairuko etxea bost izatera pasako litzateke eta bi pisu dauden solairuan hiru egin ezker, 8 pisutik 15 izatera pasako ginatke. Pisu bakoitzaren prezioan lur zatiari dagokiona ia erdia izango litzateke, eta etxebizitza bakoitzaren prezioa asko jeitxiko litzateke.

Hau egin ezker kaxkoa bizilagunetz beteko da, komertzioetara jende gehiago joango da eta bestela oso zaila dena: ekonomia bizi araziko dugu.

Ion Azpiazu

| KIROLA             |                     |      | ASTEBURUKO EMAITZAK          |                                 |       |
|--------------------|---------------------|------|------------------------------|---------------------------------|-------|
| FUTBOLA            | Taldeak             | Non  | PELOTA                       | Taldeak                         | Non   |
| <b>Gorengoak</b>   | Hernani-Tolosa      | 0-1  | <b>Gipuzkoako Txapelketa</b> |                                 |       |
| <b>Emak. Liga</b>  | Hernani-Zumaiako    | 1-1  | <b>Afizionatu</b>            | Alvarez-Andazpe                 | 22-4  |
| <b>Gazt. Nazi.</b> | Alaves-Hernani      | 2-1  | <b>Afizionatu</b>            | Sarasua-Artano/Lazkao           | 12-22 |
| <b>ERRUGBIA</b>    |                     |      | <b>Paleta</b>                | Manzisor-Martinez/Intxurrondo   | 26-30 |
| <b>Lagunarte.</b>  | Hernani A -Donibane | 24-7 | <b>Pala M</b>                | Ubarretxena-Galarza/Altzatarra  | 23-40 |
| <b>Lagunarte.</b>  | Hernani B-Donibane  | 0-21 | <b>Jubenilak</b>             | Ezeiza-Gorrotxategi/S. Esteban  | 22-19 |
| <b>BOLEBOLA</b>    |                     |      | <b>Jubenilak</b>             | Arrieta-Irazustabarrena/Bergara | 22-10 |
| <b>1 Maila</b>     | Mazcuerras-Hernani  | 3-2  | <b>Jubenilak</b>             | Gurrutxaga-Azkoitia             | 6-22  |
|                    |                     |      | <b>Kadeteak</b>              | Barrantes-Fernandez/Altzatarra  | 22-15 |
|                    |                     |      | <b>WATERPOLOA</b>            |                                 |       |
|                    |                     |      | <b>Euskal L</b>              | Fadura-Hernani A                | 10-3  |
|                    |                     |      | <b>Gipuzko</b>               | Urbat-Hernani B                 | 8-4   |
|                    |                     |      | <b>Gipuzkoa</b>              | Hernani A-Tximistarrri          | 11-2  |

Hernaniko Kronikako laguntzaile:

# ORAZUNE PROMOCIONES

## WATERPOLOA -EUSKADIKO LIGA

# Fadurak pasara ederra eman zion larunbatean EHU-Hernaniri, 10-3

■ Hernaniko taldeak akats asko egin zituen.

AKATS gehiegi egin zituen EHU-Hernani taldeak larunbatean Getxon eta etxeko taldeak aixe hartu zuen menpean. Arbitroek ere izan zuten eragina azken emaitzan, hernaniarrei 12 espulsiotatu baizizkien. Datorren igandean Hernanin jokatuko dute Larraina Iruñako taldearen kontra.

### Gipuzkoako Liga

Lehen taldeak Euskadiko ligako partidua gain Gipuzkoako ligako ere jokatuko du aste-

buruan. EHU-Hernani gora-goko mailan dagoela nabarmen gelditu zen eta Tximistarrri 12-4 irabazi zioten. Bi-garren taldeak berriz, galdu egin du Gipuzkoako ligako partidua Urbat-en kontra 8-4 nahiz eta partidua txukuna jokatuko.

Asteburuko partiduetan minutu bateko isilunea gorde dute Hernaniko jokalariek, Jon Imanol Fernandez jokalariren aita hil baita. Taldeak doluminak agertu dizkio famili osoari. □

## URREZKO EZTEIAK

Julio eta Mari: ezkondu zineteneko 50garren urteurrena dela eta, senideok zorionak eman nahi dizkizuegu eta bihotz bihotzez, elkarrekin urte askoan jarrai dezazuela opa dizuegu.

| ZERBITZUAK                         |   |   |
|------------------------------------|---|---|
| <b>TELEFONOAK</b>                  | <b>FARMAZIAK</b>  | <b>Gauzez: Gomez</b><br>Kale Nagusia 15<br>☎ 943 554892 |
| ☎ Taxiak:<br>943 550093            | ☎ Egunez: Bilbao-Sagastiberri<br>Urbietan 7<br>☎ 943 552941 | <b>ASTEAZKENA</b>                                       |
| ☎ Udaltzaingoa:<br>943 333288      | ☎ Gauzez: Bilbao-Sagastiberri<br>Urbietan 7<br>☎ 943 552941 | ☎ Egunez: Bulnes<br>Florida auzoa<br>☎ 943 557738       |
| ☎ DYA:<br>943 464622               | <b>ASTEARTEA</b>  | ☎ Gauzez: Bulnes<br>Florida auzoa<br>☎ 943 557738       |
| ☎ Anbulatorioa:<br>943 006666      | ☎ Egunez: Gomez<br>Kale Nagusia 15<br>☎ 943 554892          |   |
| ☎ Jokalari anonimoak<br>943 331103 |   |   |

## HERIOTZAK

Justina Arbiza Etxebeste

Igandean hil zen 90 urte zituela

Hileta elizkizunak gaur, astelehena, arratsaldeko ZAZPIETAN

Juan Bataiatzailea Parrokian

# Hernani Institutua

A. Iturriaga - K. Labaka

**100 %ean subentzionatutako ikastaroak.**

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Asegurantzako sailarekin elkarlan konbenioarekin eta Europar Gizarte fondoak kofinantziatuta.

## FORMAZIO OKUPAZIONALEKO IKASTAROAK

### TXIRBIL HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIOA

|   |         |
|---|---------|
| ☎ Mekanizatu prozesua                       | 40 ordu |
| ☎ CNC fresan programazioa eta eragiketa     | 55 ordu |
| ☎ CNC tornan programazioa eta eragiketa     | 40 ordu |
| ☎ Mekanizazioa ohizko fresadoran            | 60 ordu |
| ☎ Mekanizazioa ohizko tornan                | 60 ordu |
| ☎ Neumatika                                 | 40 ordu |
| ☎ Segurtasuna Fabrik. Mekanikako industrian | 20 ordu |
| ☎ Ingurugiroarekiko arreta                  | 13 ordu |
| ☎ Bistak eta krokizazioa                    | 40 ordu |
| ☎ Planoen interpretazioa                    | 40 ordu |

|                     |                        |
|---------------------|------------------------|
| Ikastaroaren orduak | 408                    |
| Plazak              | 10                     |
| Orduetgia           | 15:30etatik 20:30etara |
| Norentzat           | Langabetuak            |
| Hasiera             | 2002-10-07             |

COMUNIDAD EUROPEA  
Fondo Social Europeo

JUSTIZIA, EKONOMIA, LAN ETA  
GIZARTE SEGURANTZA SAILA

IZEN EMATEKO EPEA: URRIAK 14

Sta. Barbara auzoa z/g ● Tel. 943 551 188 ● Faxa: 943 552 271  
[hernani@hernanibhi.hezitek.net](mailto:hernani@hernanibhi.hezitek.net)